Ez da ez txantxa! Badator errebantxa! Hau da martxa!

Aurten, bosgarren aldiz ospatuko dugu
GIPUZKOAKO BERTSO ESKOLEN EGUNA , eta Azkoitian daukagu zita.

Bai, bai, 400 neska-mutiko inguru, edo 400 bertsozale,
400 bertsolari... zu, ni, haiek, gu... denok!

Bertsoa maite dugunok geure buruari eskainitako egun bat daukagu.
Egun horretan, bertsoak, jolasak eta egun-pasa zoragarri batek elkartzen gaitu berriro aurrez elkar ezagutzen dugun asko. Eta, gainera, ezagutzen ez ditugunekin elkartu eta haiek ezagutzeko aukera ezin hobea dugu.

Noski! Horretarako egitarau aproposa prestatu dugu:
Ikusi, ikusi beste orrialdean!

Gure bertsoaren trena, urtez urte Villabona, Oiartzun, Oñati eta Usurbilen geldialdia egin ondoren, Azkoitira bidean dator.

Gipuzkoa osoan banatuta dauden haur,
gazte eta helduen 120 taldeekin,
bertso eskola erraldoia bihurtuko da Azkoitia aurten.

**NORA BEGIRA ZAUDE IZENA EMAN
ETA EGUN PASA ETORTZEKO?**

Goizeko 10:30ean
AZKOITIKO PLAZAN
ELKARTUko gara.





11:00etatik aurrera:
JINKANA JOLASA
haur eta gazteentzat herrian zehar.



13:30ean:
BAZKARIA.



14:30etik aurrera:
ZEZENAK
eta PONYEAK.



17:00etan:
BERTSO ESKO~~L~~BA
antzezlana.



18:30ean:
Autobusa hartu eta etxera.